

2020ko otsaila

Getxoko Udala



# Getxo txukun

**Auzoz auzo, kalez kale.**

**Lagundu iezaguzu zure auzoa hobetzen**

**Barrio a barrio, calle a calle**  
**Ayúdanos a mejorar tu barrio**



# EMAITZEN TXOSTENA


## AURKIBIDEA

- 0. AURKEZPENA 3
- 1. PARTAIDETZAREN EMAITZAK 6
- 2. EKARPENAK 9



## O. AURKEZPENA.

Txosten honetan “Getxo txukun. Auzoz auzo, kalez kale. Barrio a barrio, calle a calle” ekimenaren esparruan lortutako emaitzak jaso dira. Ekimena **azaroaren 15etik abenduaren 1era bitartean** egin zen, **Makaleta etorbidea, Iturribarri, Areneondo, Arene, Billamonte, Bolue eta Salsidu kaleek** mugatutako eremua hobetzeko iradokizunak biltzeko asmoz.





## Bideak

### Nola parte har zitekeen?

Auzoa hobetzeko iradokizunak inprimaki ebakigarrian idatzita eta horiek hemen sartuta:

- Billaondoeta eta Salsidu kaleek bat egiten duten bidegurutzean, Iturgitxi eta Basarrate kaleen arteko bidegurutzean eta Arene kalea Iparbiderekin elkartzen den tokian jarritako **postontzi** gorrietan. Postontziak azaroaren 15etik abenduaren 1era arte (biak barne) egon ziren bertan.
- Billamonteko Kultur Etxean azaroaren 15etik abenduaren 1era jarritako **kutxan**.
- Azaroaren 22an, ostirala, Basarrate parkean jarri genuen **karpan** eta azaroaren 23an, larunbata, Billaondoeta eta Salsidu kaleen arteko bidegurutzean jarritako karpan. Orduategia honako hau izan zen: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.
- **Online** inprimaki baten bidez, webgune honetan: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus).



## Zer?

### Zer jaso zen Getxo txukun programan?

Obra txikietarako dagoen aurrekontuarekin auzoan egin daitezkeen hobekuntzak.



## EZ

### Programa honetan zer ez zen sartzen?

- Jarduera estrategikoak, esate baterako, kaleak, parkeak edota auzoak berriz urbanizatzea, guztiz.
- Ekipamendu handiei, kiroldegiari, igerilekuei, osasun zentroeiei eta abarri lotutako eskaerak.
- Teknikoki edota ekonomikoki bideragarriak ez diren proposamenak.



- Udalaren eskumenekoak ez diren esku-hartzeak.

**Orain?**

### Jasotako iradokizun guztiekin zer egingo dugu?

Iradokizunak **kuantifikatu, aztertu eta baloratu egingo dira teknikoki**, aurrera eraman daitezkeen proposamenak lehenesteko asmoz.

**Nola?**

### Emaitzak nola itzuliko dira?

Prozesu honetako emaitzak emaitzen txosten batean islatuko dira, eta hori **udal-webgunearen bidez ikusi ahal izango da**. Horrez gain, inguruko etxeetara bidaliko da **postaz**.


**Esparrua**

### Zein esparru hartzen du Getxo txukunek?

Honako kale hauek mugatzen duten esparrua: **Makaleta etorbidea, Iturribarri, Areneondo, Arene, Billamonte, Bolue eta Salsidu**.




## 1. PARTAIDETZAREN EMAITZAK.




Grafikoan ikus daitekeen moduan, prozesu honetan **guztira 221 pertsonak** parte hartu dute; horietako askok behin baino gehiagotan parte hartu dute, eta **guztira 465 ekarpen** jaso dira. **69** parte-hartzaile prozesutik kanpo geratu dira; 8 identifikatuta ez egoteagatik eta beste 61 hobekuntzak egingo diren eremuan bizi ez direlako.


Prozesuan parte hartzeko moduak hainbat izan ziren: **75 pertsonak postontzietan** sartu zituzten galdetegiak, **50 pertsonak karpak** bidez parte hartu zuten, **16 pertsonak online** parte hartu zuten udaleko webgunean eskuragarri jarritako inprimakiaren bidez eta **11 pertsonak kutxak** erabili zituzten. **Guztira 462 ekarpen** jaso ziren eta horietatik **378 baliozkotu** ziren prozesuaren esparruan.



Grafikoan ikus daiteke parte hartzaileak zer kaletan bizi diren. Lehen lau kaleetan egon da parte-hartzerik handiena: **Billamonte, Iturgitxi, Iparbide eta Basarrate.**



Generoaren araberako parte-hartzearen analisia egin ostean (69 pertsona nulu, hainbat arrazoiren ondorioz), emakume gehiagok parte hartu duela ikusi da: **91 emakume** eta **61 gizon**.



Parte-hartze prozesu honetan gehien parte hartu duen adin-tarteari dagokionez, ikus dezakegu 45 urtetik gorako pertsonak izan direla gehien parte hartu dutenak.



Laburbilduz, prozesu honi esker herritarrek euren kezkek eta iradokizunak helarazi dizkigute **Makaleta etorbidea, Iturribarri, Areneondo, Arene, Billamonte, Bolue eta Salsidu kaleek** mugatutako eremua hobetzeko.

Txosten honetan erakutsitako parte-hartze prozesuaren emaitzek gizarte- eta estatistika-azterketen kalitate-estandarrak jarraitu dituzte, emaitzen egiazkotasuna eta fidagarritasuna bermatuz, baita datuen zaintza zorrotza eta anonimotasuna eta konfidentziasuna bermatuz ere; hori guztia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren arabera eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez.

## 2. EKARPENAK.

Prozesu honen esparruan, **378 ekarpen baliodun** jaso dira, honelaxe banatu direnak:

